

# ARTZIKIROLA ETA COLPBOLA

**MAITE APERRIBAI URIBETXEBARRIA**

**Marrazkilaria: Belatz**



UNITATE DIDAKTIKOA					
Izenburua		ARTZIKIROLA ETA COLPBOLA			
Maila	LMH 4	Saio-kopurua	10		
Lantzen diren ekintzen dominioa (laranjaz)					
1	2	3	4	5	6
Bakarkako ekintzak	Bat baten aurkako ekintzak	Elkarlaneko ekintzak	Elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzak	Ziurgabetasun-ingurunekeo ekintzak	Adierazpen- eta arte-ekintzak
Justifikazioa					
<p>Unitate didaktiko honetan <i>elkarlaneko-aurkakotasuneko</i> ekintzak biltzen dituen dominioa lantzen da, –laugarrena sailkapenean–. Dominio horren helburua da ikasleek ingurune egonkorretan taldeko kirol eta jolasetan aurkarien taldeari irabazteko oinarritzko ikaskuntzak –zehazki, elkarlanerako eta aurka egiteko estrategiak– erabiltzen jakitea, eta, horren ondorioz, taldeko kirolak praktikatzean eraginkorragoak izatea lortzea.</p> <p>Araututako bi proposamen ludiko aukeratu dira dominio hori lantzeko: artzikirola eta colpbola.</p> <p>Artzikirola eskubaloian, areto-futbolean eta errugbian oinarritutako jokia da, Arabako Artziniega herrian asmatutakoa. Colpbola, berriz, Valentziako jolas tradizional batean oinarritutako jokia da, hezkuntza arloan asmatutakoa. Bi jokoek, hainbat jolas-arau ezberdin izan arren, barne-logika bera dute. Bi taldek partida bat jokatzen dute elkarren kontra espazio egonkor batean. Baloia aurkariaren atean sartzeari da talde bakoitzaren helburua. Horretarako, taldekideek askotariko estrategiak adostu beharko dituzte: alde batetik, taldeko jolasak direnez, elkarlanean aritzeko estrategiak bateratu beharko dituzte, eta bestetik, aurkakotasuneko jolasak direnez, aurka egiteko estrategiak.</p> <p>Artzikirolak eta colpbolak taldeko kiroletan jokatzeko gaitasuna garatzen laguntzen dute, batez ere kirol horietan oinarritzko ikaskuntzak –hain zuzen eraginkortasunez parte hartzeko estrategiak eta taldean lan egiteko estrategiak– erabiltzeko gaitasuna, ikasle guztien parte-hartzea eta talde-lana sustatzen baititu. Horregatik, ikasleek erabakiak hartzen eta adosten ikasteko jarduera egokiak dira. Horrez gain, artzikirola eta colpbolaren bidez, ikasleei denbora libre bat betetzeko eskaintza erreala zabaltzen diegu.</p> <p>Artzikirola eta colpbola azken hamarkadetan asmatutako talde-jokoak izanik, ikasle gehienentzat jarduera berriak dira eta haien motibazioa areagotzen dute. Izan ere, ikasleek neurri handi batean trebetasun-maila bera dutenez, errazagoa da ikasle guztien parte-hartzea lortzea beste taldeko kirol batzuetan baino. Halaber, ikasleek kideen zein aurkarien jokabideak hobeto eta errazago ulertzea eta interpretatzea erdiesten dute, eta estrategia eraginkorrak baliatzen ikasten dute. Horrez gain, hezkidetzak eta genero-berdintasuna sustatzen duten jarduerak dira, colpbolean taldeek mistoak izan behar baitute eta artzikirola hezkidetzak sustatzeko egokia baita.</p>					

## Helburuak eta ebaluazioa

Helburu didaktikoak	Ebaluazio-irizpideak (Heziberri)	Lorpen-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p>Artzikirola eta colpbolaren bidez taldeko kirolen oinarritzko ezagutzak eskuratzea, taldekideekin elkarlanean aurkariei aurre egiteko.</p>	<p>2. Jolasetan eta jarduera motorretan pilotak edo beste higikari batzuk jaurtitzea, pasatzea eta jasotzea, kontrola galdu gabe eta behar bezala egokituz joko-zelaiko egoerari, distantziei eta ibilbideei.</p> <p>5. Modu koordinatuan eta lankidetzan jardutea, erronkak ebazteko edo taldeko jolasetan aurkari bati edo batzuei aurre egiteko, bai erasotzaile gisa, bai defendatzaile gisa.</p>	<p>Jolas-egoeran, eskuekin eta oinekin baloia kontrolatzen du.</p> <p>Jolas-egoera bere alde edo taldearen alde jartzeko gai da.</p> <p>Erasorako eta defentsarako bakarkako eta taldeko estrategiak erabiltzen ditu.</p> <p>Jolas-egoeran, espazio hutsei antzeman eta modu eraginkorrean erabiltzen ditu.</p> <p>Artzikirola eta colpbolaren arauak ezagutu eta betetzen ditu.</p> <p>Desplazamenduak, baloiarekin eta baloirik gabe, pase-harrerak, jauziak, baloi-gidatzeak, baloi-jotzeak eta gola sartzeko jaurtiketak era koordinatuan eta jarraituan egiten ditu.</p> <p>Eraso eta defentsa egoeretan rolak identifikatu eta betetzen ditu.</p> <p>Bere ekintza motorrak besteekin koordinatzen ditu.</p>	<p>Hasierako ebaluazioaren orriak</p> <p>Lorpenen jarraipen-orria</p> <p>Autoebaluazio-orria</p> <p>Koebaluazio-orria</p>

<p>Jarduera fisiko guztiak egitean nork bere buruarekin eta besteekin jarrera arduratsua izateko prest agertzea.</p>	<p>4. Jarrera aktiboak izatea, egoera fisikoa oro har hobetzeko, eta jarduerak egitean kontuan hartzea norberaren gorputzaren eta mugimendu-gaitasunaren aukerak eta mugak.</p> <p>6. Norberaren ahalegina eta taldearekin ezartzen diren harremanak identifikatzea jolasen eta kirol-jardueren oinarrizko balio diren aldetik, eta haiekin bat jokatzeko.</p>	<p>Jardueretan, gustura hartzen du parte eta jarrera ona du.</p> <p>Ahalegina eta harremanak emaitzaren gainetik balioesten ditu.</p> <p>Irabaztea edo galtzea onartzen du.</p> <p>Hausnartzeko denboran taldean era positiboan eragiten du eta kritika eraikitzailea egiten du.</p>	<p>Hasierako ebaluazioaren orria</p> <p>Lorpenen jarraipen-orria</p> <p>Autoebaluazio-orria</p>
<p>Jarduera fisikoa egitean ekipamenduari eta higie-ne-ohiturei erreparatzea, bizi-ohitura osasungarriak finkatzen eta autonomia izaten laguntzeko.</p>	<p>8. Jokabide aktiboak izatea, ariketa fisikoak osasunerako duen balioa aintzat hartuta, gorputza eta jarrera- nahiz elikadura-ohiturak zaintzeko interesa izatea, eta drogen kontsumoa eta portaera-mendetasunak sor ditzaketen jokabideak saihestea.</p>	<p>Jarduera fisikoa egiteko arropa eta oinetako egokiak erabiltzen ditu.</p> <p>Jarduera fisikoa egitean, osasuna eta higie-ne-a zaintzen ditu.</p>	<p>Koebaluazio-orria</p>

**Edukiak**

- Elkarlaneko ekintzak eta elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzak
- Taldeko kirolen oinarrizko ikaskuntzak: espazioaren zein baloiaren erabilera egokia, erasorako eta defentsarako estrategiak, jolas-egoera taldearen alde jarri, helbururantz mugitu eta rol aldaketak eta ekintza motorren kateaketa egin
- Artzikirola eta colpbolaren ikaskuntza espezifikoak: baloi-gidatzeak eta baloi-jotzeak.
- Oinarrizko trebetasun motorrak: jaurtiketak, paseak, harrerak eta desplazamenduak.
- Artzikirolaren eta colpbolaren arauak
- Emozioen azterketa: emozioen kontzientzia eta norberaren erregulazioa
- Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera positiboa
- Errespetua: norberarekiko, lagunekiko, irakaslearekiko eta materialarekiko
- Osasun- eta higiene-ohiturak
- Talde-hausnarketa. Kritika eraikitzailea

**Irizpide metodologikoak**

Unitate didaktiko honetan, ikasleek ingurune egonkorrean landuko dituzte elkarlaneko-aurkakotasuneko dominioaren ikaskuntzak. Artzikirola eta colpbola dira ikaskuntza horiek barnerratzeko erabiliko diren talde-jokoak.

Unitate didaktikoak dituen helburuak lortzeko, jarduerak era progresiboan daude antolatuta saioz saio: analitikoak alde batera utzita, joko eta jolasetan oinarrituko dira eta ikasleen premien arabera egokituko ditu irakasleak.

Artzikirolaren eta colpbolaren oinarritzko printzipioen ikaskuntzak eta landuko diren jarduerak duten progresioa izango dira unitatearen ardatz metodologikoak: elkarlaneko-aurkakotasuneko jolas-egoera simple batetik abiatuz, elkarlaneko-aurkakotasuneko joko-egoera errealerira iritsi artekoa, alegia.

Saio guztietan jarduera nagusi bat dago, eta jarduera nagusi hori aurrez aipatutako progresioaren ondorioa da. Hala, saioz saio, jolas-egoerak zailduz, jolas-arauak eta jokalaria gehituz eta espazioak handituz joango dira. Era horretan, hasieran jolas-egoera sinplea dena, azken saioan artzikiroleko edo colpboleko partida bilakatzen da.

Unitatearen lehenengo sei saioetan artzikirola landuko da eta ondorengo lau saioetan berriz colpbola, eta ikasleek ezagutzen eta praktikan izandako aurrerapena ikusteko, joko bakoitzaren lehenengo eta azken saioko jarduerak oso antzekoak egitea proposatzen da unitatean.

Aniztasunari erantzun egokia emateko, hainbat saiotan lagungarri izan daitezkeen aldaera batzuk proposatzen dira irakaslearentzat, betiere ikasle guztien garapena bermatzeko benetako aukerak eskaintze aldera.

Saioak kiroldegian –ingurune egonkorrean– areto-futboleko zelaian egingo dira. Horretarako, eta beti segurtasuna bermatuz, beharrezkoak diren joko-zelaiak antolatuko dira bertan. Horrez gain, espazioa eta ikasleen kopurua uztartzeko hainbat jarduera “kiniela” eran antolatuko dira.

Materialari dagokionez, artzikirolean eta colpbolean aritzeko egokiak diren baloi bigunak eta gomazkoak erabiliko dira.

Taldekatzeak, berriz, orekatuak, heterogeneoak eta mistoak izatea bermatuko da. Talde txikitan eta handian egingo dituzte jarduerak, eta ikasleen autonomia sustatzeko, haiek izango dira, txandaka, taldekatzeak ere egingo dituztenak.

<b>Kalifikazio-adierazleak</b>
<b>Espezifikoak: % 55</b>
Jokabide motorraren garapena
<b>Orokorrak: % 45</b>
Ahalegina, parte-hartze aktiboa eta jarrera positiboa
Errespetua (norberarekiko, lagunekiko, irakaslearekiko eta materialarekiko)
Arreta

<b>Diziplina barruko oinarrizko kompetentziak</b>	
<b>1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Artzikiolarekin eta colpbolarekin lotutako lexikoa ezagutzea eta erabiltzea.</li> <li>• Jendartean hitz egiteko oinarrizko arauak ezagutzea eta erabiltzea.</li> <li>• Taldeko estrategiak adosteko nork bere argudioak era egokian azaltzea eta besteenak entzutea.</li> <li>• Nork bere erantzun motorrak, bizipenak eta emozioak taldean ahoz azaltzea.</li> <li>• Ekintza- eta printzipio-arauak adieraztea.</li> <li>• Ekintza motorren praktikan aginduak ematea zein jasotakoak ulertzea eta interpretatzea.</li> <li>• Ahozko komunikazioan hizkuntza ez-sexista eta ez-baztertzailea erabiltzea.</li> </ul>
<b>2. Matematikarako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espazio-denbora arteko loturaz eta espazioaren antolaketaz ohartzea.</li> <li>• Jokoen puntuazioa, saiakera-, arrakasta- eta porrot-kopuruak kalkulatzeko eta haien interpretazio matematikoa egitea.</li> <li>• Azalerak, altuerak eta denborak neurtzea.</li> <li>• Baloiaren norabide eta ibilbidea aurreikustea.</li> </ul>
<b>3. Zientziarako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Higienearekiko eta osasunarekiko jarrera arduratsua izatea.</li> <li>• Aisialdia betetzeko jarduera fisikoa balioestea.</li> </ul>
<b>4. Teknologiarako kompetentzia</b>	
<b>5. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jolasetan eta jardueretan arauak betetzea.</li> <li>• Gatazkak bideratzeko eta konpontzeko, elkarrizketa erabiltzea.</li> <li>• Jarrera ez baztertzailea izatea, aniztasuna balioestea eta lagunekiko errespetua izatea inor baztertu gabe, gaitasun, genero, maila sozio-ekonomiko, jatorri edo beste edozein arrazoi dela.</li> <li>• Nork bere ekintzen ondorioez hausnartzea.</li> <li>• Emozioak azaleratzea eta, emaitza gorabehera, autoerregulatzea.</li> <li>• Besteei laguntza emateko prest egotea.</li> <li>• Frustrazio-egoerei aurre egiteko, estrategiak ezagutzea, balioestea eta erabiltzea.</li> <li>• Autonomia izatea.</li> <li>• Zailtasunei aurre egiteko eta arduraz jokatzeko, jarrera positiboa izatea.</li> <li>• Taldekideak eta aurkariak errespetatzea.</li> <li>• Taldean rol bakoitzari dagozkion funtzioak eta betebeharrak adostea.</li> <li>• Lehiaketetan, emaitzaren gainetik, ahalegina eta taldekideen arteko harremanak lehenestea.</li> <li>• Jardutean elkarlanaren eta elkartasunaren balioa barneratzea eta taldean integratuta sentitzea.</li> </ul>



**6. Arterako konpetentzia****7. Konpetentzia motorra**



- Elkarlaneko-aurkakotasuneko egoera motorrak lantzea.
- Jokaera motorrak barneratzea eta hobetzea.
- Taldeko kirolen oinarrizko ikaskuntzak eta artzikirolaren eta colpbolaren ikaskuntza espezifikoak lantzea.
- Arauak eta estrategiak zehaztea eta finkatzea, eta horiek beste hainbat egoera motorretan aplikatzea.
- Oinarrizko trebetasun motorrak lantzea.
- Espazioaren eta denboraren arteko loturaren pertzepzioa hobetzea.
- Norberaren garapen osasuntsu eta orekatuan, jarduera fisikoaren eta ohitura osasungarrien garrantziaz jabetzea.



<b>Oinarrizko zehar-kompetentziak</b>	
<b>1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzez aginduak eta gomendioak ematean, estrategiak adostean eta bizipenak, emozioak eta pentsamenduak adieraztean, era autonomo, sortzailean eta eraginkorrean aritzea.</li> <li>• Artzikirola eta colpbol jokoen arauak ulertzea eta errespetatzea, eta lehiaketetan autonomia izatea.</li> </ul>
<b>2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Artzikirolean eta colpbolean aritzean, norberaren ezaugarriak, trebetasunak eta mugak ezagutzea, eta artzikirolaren eta colpbolaren arauak ulertzea eta barneratzea (pentsamendu analitikoa).</li> <li>• Egindako praktikan, norberaren erantzun motorrak eta jarrerak aztertzea, ebaluatzea eta autoerregulatzea (pentsamendu kritikoa).</li> <li>• Elkarlaneko-aurkakotasuneko estrategiak sortzea eta aukeratzea (pentsamendu sortzailea).</li> <li>• Ikasitakoa beste egoera batzuetan erabiltzen jakitea.</li> </ul>
<b>3. Elkarbizitzarako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saioaren bukaeran norberaren bizipenak, pentsamenduak eta sentimenduak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteenak entzutea eta kontuan hartzea.</li> <li>• Jolas-arauak errespetatzea eta betetzea.</li> <li>• Gatazka-egoerak elkarriketaren bidez bideratzea eta konpontzea.</li> <li>• Hezkidetza eta genero-berdintasuna kontuan hartzea.</li> <li>• Taldean lan egiten ikastea: estrategiak adostea, helburu berarekin elkarlanean aritzea eta rol bakoitzari dagokion funtzio eta betebeharrak onartzea.</li> </ul>
<b>4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintza-arauak eta -printzipioak sortzea eta ikaskuntzan aurrera egiteko proposamenak egitea.</li> <li>• Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea.</li> <li>• Egindako jarduerak ebaluatzea eta saioaren bukaeran hobetzeko proposamenak egitea.</li> <li>• Norberaren lana hobetzeko eta besteei laguntzeko prest egotea.</li> <li>• Erronka berrien aurrean erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea.</li> </ul>
<b>5. Izaten ikasteko kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Norberaren pentsamendua eta ikasteko estilo kognitiboa erregulatzea.</li> <li>• Norberaren jokabide etikoa erregulatzea.</li> <li>• Norberaren motibazioa eta nahia erregulatzea.</li> <li>• Norberaren garapenean, ariketa fisikoaren eta ohitura osasungarrien garrantziaz jabetzea. Gorputzaren irudia erregulatzea.</li> <li>• Norberaren emozioak ezagutzea eta kudeatzea.</li> <li>• Norberaren kontzeptu eta estimu ona edukitzea.</li> <li>• Nork bere erabakiak gero eta autonomia gehiago hartzea eta erabakitakoen gaineko erantzukizuna onartzea.</li> </ul>



<b>Gorputz Hezkuntza. Etapako helburuak (gorriz)</b>	
1	Hautemate-gaitasunak eta gaitasun motorrak aztertzea, nork bere buruarengan konfiantza izatea eta, norberaren ongizatea sustatuz, osasunerako onuragarria izan dadin.
2	Trebetasun eta gaitasun fisikoak garatzea, haurren eboluzio-prozesuarekin bat, jolasa erabiliz, oinarrizko baliabide den aldetik.
3	Problema motorrak ebazteko printzipioak eta arauak ezagutzea, hautatzea eta aplikatzea, jarduera fisikoak, kirol-jarduerak eta arte- eta adierazpen-jarduerak praktikatzean eraginkortasunez eta autonomiaz aritzea, ahalegina erregulatuz, dosifikatuz eta balioetsiz, eta norberaren aukeren eta zereginaren nolakotasunaren arabera maila jakin batera iristea, nork bere buruari ezartzen dion eskakizunean.
4	Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako jolas-tradizioak, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren tradizioak nahiz adierazpen-tradizioak ezagutzea, haien balioak errespetatzeko eta balioesteko, jolas eta adierazpen tradizionalak eta herrikoiak praktikatzuz.
5	Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-bitartekoen berri jakitea, modu estetikoan eta sortzailean landuz, haiek sentitzeko, bizitzeko eta onartzeko, eta mugimendu propio baten bidez pertsonalizatzeko.
6	Jarduera fisikoa neurritz eta maiz egitearen garrantzia balioestea, norberarekiko nahiz besteekiko erantzukizunezko jarrera erakusteko, eta ariketa fisikoak, higieneak, elikadurak eta jarrera-ohiturek osasunean dituzten eraginak aintzat hartzea.
7	Jarduera fisikoetan parte hartzea, besteekin batera talde-harremanak sustatzen dituzten proiektuak garatuz eta aisia-kultura aberasgarri baten oinarriak eraikiz.

<b>Saioen sekuentzia</b>	
<b>1. saioa</b>	Unitate didaktikoa aurkeztea. Artzikirolean jokatzeari buruz. Colpbolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.
<b>2. saioa</b>	Saioa aurkeztea. Harrapaketan jolastea. Baloia kutxatik kutxara eramaten jolastea (1). Baloia kutxatik kutxara eramaten jolastea (2). Artzikirolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.
<b>3. saioa</b>	Saioa aurkeztea. Harrapatzaileak gehitzen jolastea. Artzikirolaren araudia lantzea. Hamar pase egokituan jolastea Artzikirolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.
<b>4. saioa</b>	Saioa aurkeztea. Marren gaineratik harrapaketan jolastea. Armiarma hirukoitza jolasean aritzea. Erasotzen eta defendatzen jolastea. Artzikirolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.
<b>5. saioa</b>	Saioa aurkeztea. "Gol-atezaina". "Atezain mugikorra". 20 segundo eta jaurtilu jolasean aritzea. Artzikirolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.
<b>6. saioa</b>	Saioa aurkeztea. Baloia hondoko marrara jolasean aritzea. Artzikirolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.
<b>7. saioa</b>	Saioa aurkeztea. Baloi-jotzeak esperimendatzea. Colpbolaren araudia lantzea. Tennis-Colpbolean jolastea. Colpbolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.
<b>8. saioa</b>	Saioa aurkeztea. Baloi-balan jolastea. Errondoa handitzen jolastea. "Gol-atezaina". Colpbolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.
<b>9. saioa</b>	Saioa aurkeztea. "Lapikoa". "Baloi-dorrea". Erreleboak egitea. Colpbolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.
<b>10. saioa</b>	Saioa aurkeztea. Colpbolean eskutik helduta jolastea. Colpbolean jokatzeari buruz. Hausnartzeko tartea.



1. saioa			
<b>Saioaren helburua</b>	Artzikirolean eta colpbolean, elkarlaneko-aurkakotasuneko jolas-egoeretan, ikasleen ezagutza eta praktika maila identifikatzea.		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Baloï bigunak ( <i>foamezkoak</i> dira egokienak), hiru koloretako petoak, hasierako ebaluazioaren orriak (1.eranskina) eta autoebaluazio-orria (2.eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Unitate didaktikoa aurkeztea	<b>Denbora</b>	15 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean eseriko dira, eta irakasleak unitate didaktikoaren aurkezpena egingo du.</p> <p>Ikasleek gaiaren inguruan zer dakiten esango dute, eta inoiz artzikirolean edo colpbolean aritu diren ala ez azaldu. Ondoren, bizipenak ikaskideekin elkar banatuko dituzte.</p> <p>Gero, irakasleak unitatearen helburua eta ebaluazio adierazleak zein diren zehaztuko ditu, eta horretarako egingo diren jarduerak azalduko. Ondoren, ikasleek <b>hasierako ebaluazioaren orria</b> beteko dute.</p>			
<b>2. jarduera</b>	Artzikirolean jokatzeta	<b>Denbora</b>	20 min
<p>Kiroldegiko kantxa, areto-futboleko edo eskubaloiko zelaia.</p> <p>Ikasleak hiru taldetan banatuta, koloretako petoz bereiztuta.</p> <p>Sei seiren aurka. Artzikirol partida bat jokatu dute. Espazioa eta ikasleen kopurua uztartzeko "kiniela" eran jokatu dute. Ikasle bat atezaina izango da eta besteak aurkarien atean gola sartzen saiatuko dira. Hori gertatzen denean, gola jaso duen taldea kanporatua izango da, eta haren lekuan, kanpoan zai zegoen taldea jokatzera sartuko da zelaira.</p> <p>Lau minutuko epean talderen batek ez badu golik sartzen, denbora gehien aritu den taldea kanporatua izango da (lehenengo partidari, zein talde aterako den zozketa bidez erabakiko da).</p> <p>Baloia gorputzeko edozein atalekin ukitu daiteke, eta bi eskuekin hartzea posible da. Aurkariak bi eskuekin ukitzen badu baloia eskuetan daukan ikaslea, horrek baloia galduko du (horregatik komeni da, aurkaria hurbiltzen denean, baloia taldekideei pasatzea edota lurrian uztea oinekin jokatzen jarraitzeko). Aurkariari heltzea edo bultzatzea debekatuta dago.</p> <p>Epaile-lanak irakasleak egingo ditu.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egingo dizkie ikasleei jokatu duten</p>			



<p>partidaren inguruan.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Taldean baloia mantentzeko zer egiten duzue? Non kokatu behar duzue taldekide baten pasea egoki hartzeko? Eta aurkarien pasea mozteko? Nola hurbildu zaitezketen modu egokian aurkarien atera gola sartzeko? Noiz eta zer egoeratan jaurtitzen duzue atera?...”.</p>			
<p><b>3. jarduera</b></p>	<p>Colpbolean jokatzea</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>15 min</p>
<p>Jarduera honek 2. jardueraren helburuak eta joko-antolaketa bera ditu. Kasu honetan joko-arauak aldatzen dira: baloia gerritik gorako edozein gorputz-atalekin jo daiteke baina ezin da bi eskuekin hartu ezta oinekin ukitu ere. Norberak behin bakarrik ukitu edo jo dezake baloia jarraian.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egingo dizkie ikasleei jokatu duten partidaren inguruan.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Taldean baloia mantentzeko zer egiten duzue? Non kokatu behar duzue taldekide baten pasea egoki hartzeko? Eta aurkari balaia kentzeko? Nola hurbildu zaitezketen modu egokian aurkarien atera gola sartzeko? Noiz eta zer egoeratan jaurtitzen duzue atera?...”.</p>			
<p><b>4. jarduera</b></p>	<p>Hausnartzeko tartea</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10 min</p>
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Hausnarketa bideratzeko, galderak egin daitezke.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Denok parte hartu duzue? Nola sentitu zarete? Nola moldatu zarete artzikirolean eta colpbolean jokatzeko? Zein iruditu zaizue errazagoa? Eta zailagoa? Zer hobetu behar duzue artzikirolean eta colpbolean hobeto jokatzeko?”</p> <p>Nahitaezko galdera:</p> <p>“Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saioaren bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta ikasleek <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			




2. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Eskuekin eta oinekin baloia kontrolatzea, taldean mantentzea eta haren menderatze esanguratsua lortzea.</p> <p>Desplazamenduak, paseak, harrerak, baloi-jotzeak, baloi-gidatzeak, jauziak eta jaurtiketak era koordinatuan eta jarraian egitea.</p> <p>Jolas-egoera norberaren alde jartzea eta helmugarantz aurrerantz egitea.</p> <p>Espazio hutsei antzeman eta haiek modu eraginkorrean erabiltzea.</p> <p>Erasoko eta defentsako rolak identifikatzea.</p>		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	<i>Foamezko</i> baloi bigunak, konoak, petoak eta autoebaluazio-orria (2.eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioa aurkeztea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Harrapaketan jolastea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Areto-futboleko zelai erdia.</p> <p>Ikasle guztiak batera. Irakasleak bi taldetan petoz bereizita banatuko dira eta talde bat harrapatzailea izango da. Helburua aurkako taldeko iheslari guztiak harrapatzea da, eta horretarako, baloiarekin ukitu behar dituzte. Harrapatutako iheslaria lurrean eseriko da, eta soilik baloia ukitzea lortzen badu altxa ahal izango da berriro jolastera. Iheslari guztiak harrapatzean, rolak aldatuko dituzte eta berriz hasiko da jolasa.</p>			


3. jarduera	Baloia kutxatik kutxara eramaten jolastea (1)	Denbora	10 min
<p>Areto-futboleko zelai osoa.</p> <p>Zelaiaren bi aldetan kutxa bana.</p> <p>Binaka. Bikote bakoitzak zelaiaren alde batean dagoen kutxatik baloi bat hartuko du. Helburua da baloia elkarri pasatuz zelaiaren beste aldean dagoen kutxara eramatea. Horretarako, baloia nola pasatuko duten aurrez adostu behar dute, eta ezingo dute bi aldiz jarraian era bereko paserik egin. Baloia daukan ikasleak pauso bakarria eman ahal du. Baloiak ihes egin eta haren kontrola galduz gero, hasierara itzuli eta berriz hasi behar dute.</p> <p>Denbora bukatzean, baloi gehien eramán dituen bikoteak irabaziko du jolasa. Bukaeran, pase mota ezberdinak esperimentatu ondoren, irakasleak galdera hauek egin ditzake.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Nolako paseak eta harrerak eginez eramán duzue baloia azkarrago beste kutxaraino? Non kokatu behar duzue bikotekidearen pasea egoki jaso eta kutxara hurbiltzen joateko? Zenbat baloi galdu dituzue? Zergatik?...”.</p>			
4. jarduera	Baloia kutxatik kutxara eramaten jolastea (2)	Denbora	10 min
<p>Areto-futboleko zelai erdia.</p> <p>Zelaiaren bi aldetan kutxa bana eta erdialdean konoen bidez mugaturiko pasabidea.</p> <p>Binaka. Bikote bakoitzak zelaiaren alde batean dagoen kutxatik baloi bat hartuko du. Helburua da baloia elkarri pasatuz zelaiaren beste aldean dagoen kutxara eramatea. Erdiko pasabidean (konoen bidez mugaturiko eremua) aurkari bat egongo da eta honek baloia ukitzen badu baloia galduko dute bikoteek eta berriz itzuli beharko dute baloi berri bat hartzera. Horrez gain, baloiaren kontrola galduz gero ere, berriz hasi beharko dute. Paseak nahi bezala egingo dituzte, baina baloiarekin pauso bakarria eman daiteke.</p> <p>Denbora bukatzen denean baloi gehien eramán dituen bikoteak irabaziko du jolasa.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Nolako paseak eta harrerak egin dituzue baloia kutxara eramateko? Eskuekin edo oinekin egindako paseak dira eraginkorragoak zuen ustez? Non kokatu zarete eta nolako pasea egin duzue aurkariaren pasabidea gainditu eta aurkaria ekiditeko? Zenbat baloi galdu dituzue? Zergatik?...”.</p>			







5. jarduera	Artzikirolean jokatzera 1	Denbora	15 min
<p>Areto-futboleko zelaia: 20 metro luze eta 10 metro zabal. Ateak: 2 metro luze (konoen bidez ezarri)</p> <p>Bi biren aurka. Artzikirol partida bat jokatuko dute. Baloia aurkariaren atean sartzea da helburua eta gol gehien sartzen duen bikoteak irabaziko du partida. Honako arauekin jokatuko dute: baloia gorputzeko edozein atalekin ukitu daiteke; baloia eskuetan hartzen denean, gehienez hiru pauso eman daitezke; ez dago atezainik; ez dago zelai mugarik; gola sartzean, atetik aterako dute baloia eta debekatuta dago aurkariari heltzea edo bultzatzea. Bakarka eta bikotekidearekin adostutako estrategiak praktikatzeko hasiko dira.</p> <p>Aniztasunari tratu egokia emateko, aurkariak beharra duen ikasleari lasai utziko diote paseak eta harrerak egiten, berarengandik distantzia batera kokatuz.</p> <p>Golak ahoz adieraziko dituzte.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Aterantz hurbildu ahal izateko eta bikoteak baloia daukanean non kokatu zarete espazioan? Eta baloia berreskuratzeko orduan? Noiz eta zer egoeratan jaurtitzen duzue atera?...”.</p>			
6. jarduera	Hausnartzeko tartea	Denbora	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Irakasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Hausnarketa bideratzeko, galderak egin daitezke.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Denok parte hartu duzue? Nola sentitu zarete? Zer egiten duzue baloia errazago kontrolatzeko? Pase eta harrerak eraginkorrak izateko espazioan norberaren kokapenak garrantzia dauka zuen ustez? Espazio hutsei errez antzematen diezue? Erasotzaile edo defendatzaile noiz eta zeren arabera bilakatzen zarete? Zer estrategia erabili duzue?...”.</p> <p>Nahitaezko galdera:</p> <p>“Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saioaren bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta ikasleek <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			


3. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Artzikirolaren araudia lantzea eta ezagutaraztea.</p> <p>Desplazamenduak, paseak, harrerak, baloi-jotzeak, baloi-gidatzeak eta jaurtiketak besteekin koordinatzea.</p> <p>Jokatzeko une eta espazio eraginkorrenak taldearen alde erabiltzea.</p> <p>Atezainaren rola jokoan txertatzea.</p> <p>Bakarka zein taldean adostutako estrategiak aukeratu eta erabiltzea.</p>		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Foamezko baloi bigunak, konoak, petoak, orri zuriak, bost boligrafo, Artzikirolaren araudia (3.eranskina) eta autoebaluzio-orria (2.eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioa aurkeztea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Harrapatzaileak gehitzen jolastea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Areto-futboleko zelai erdia.</p> <p>Ikasle guztiak batera. Jolas hasieran, hiru harrapatzaile izendatuko dira, baloi bana emanaz eta petoz bereiziz. Helburua iheslari guztiak harrapatzea da, eta horretarako, baloiarekin ukitu behar dituzte. Harrapatutako iheslaria harrapatzaileen taldera pasatuko da eta petoa jantziko du. Eskuetan baloia daukan ikasleak hiru pauso eman ditzake gehienez, paseak eskuekin egingo ditu eta ezingo du baloirik jaurti. Iheslariari heltzea eta oztopatzea debekatuta dago.</p> <p>Ikasle guztiak harrapatzaile izatean amaitzen da jolasa.</p>			


<b>3. jarduera</b>	Artzikirolaren araudia lantzea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean eseriko dira eta irakasleak <b>Artzikirolaren araudia</b> banatuko die. Ondoren, lauko taldetan banatuko dira eta arauak irakurri, hausnartu, beraien artean argitu eta sorturiko zalantzak apuntatuko dituzte. Amaitzeko, ikasle guztiak biribilean eseriko dira eta talde bakoitzeko bozeramaileak zalantzak azalduko ditu eta guztien artean argitzen saiatuko dira.</p> <p>Irakasleak gidatze-lana egingo du. Ez du zalantzen erantzuna aurrez eman behar, eta ikasleei hausnartzeko eta erantzunak aurkitzeko denbora eman behar die.</p> <p>Bukaeran, irakasleak jada hainbat arau jolasean aplikatzen ari direla gogoraraziko die, eta hurrengo saioetan, era progresiboan, gelditzen diren arauak txertatuz joango direla aipatuko.</p>			
<b>4. jarduera</b>	Hamar pase egokituan jolastea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Hiru hiruren aurka. Jolasaren helburua da taldean hamar pase jarraian egitea. Hori lortzen duen taldeak puntu bat irabaziko du. Paseak eskuekin edo oinekin egin daitezke eta baloia daukan ikasleak desplazatzeko aukera du. Aurkaria bi eskuekin ukitzen saiatuko da eskuetan baloia daukan ikaslea; horrela, baloia berreskuratuko baitu. Egoera hau eragozteko, baloia eskuetan daukan ikasleak aurkaria hurbiltzen dela ikusten duenean, baloia kide bati pasatu edota baloia lurrean utz dezake oinekin jokatzen jarraitzeko. Ezin da baloia bote eginez desplazatu.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Zuen taldeak baloia daukanean, non kokatzen zarete pasea egoki jasotzeko? Eta aurkarien paseak moztu eta baloia berreskuratuzeko?...”.</p>			
<b>5. jarduera</b>	Artzikirolean jokatzea 2	<b>Denbora</b>	15 min
<p>Areto-futboleko zelaia: 20 metro luze eta 10 metro zabal. Ateak: 2 metro luze (konoen bidez ezarri)</p> <p>Hiru hiruren aurka. Artzikirol partida bat jokatuko dute. Partida hasieran, ikasleek atezaina nor izango den eta noiz aldatuko dituzten rolak adostuko dute. Helburua baloia aurkarien atean sartzea da, eta gol gehien sartzen duen taldeak irabaziko du partida. Honako arauekin jokatuko dute: baloia gorputzeko edozein atalekin ukitu daiteke; aurkariak bi eskuekin ukitzen badu baloia eskuetan duena, horrek baloia galduko du; atezainak ateak zainduko ditu eta ezingo du jokalariek bezala atetik kanpo jokatu. Ez dago penaltirik eta faltak ohikoak dira. Baloiak lekuan bertan bote egitea ez da falta, baina inolaz ezingo da bote eginez</p>			

<p>desplazatu. Falta guztiak eskuarekin edo oinarekin lekuan bertatik aterako dira.</p> <p>Ez dago zelai mugarik eta gola sartzean atetik aterako dute baloia. Bakarka eta taldean adostutako estrategiak aplikatuko dituzte.</p> <p>Aniztasunari trataera egokia emateko, beharra duen ikasleari aurkariak lasai utziko diote paseak, harrerak eta baloi-gidatzeak egiten, berarengandik distantzia batera kokatuz.</p> <p>Golak ahoz adieraziko dituzte.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Baloia eskuetan daukazuenean eta aurkaria hurbiltzen ari dela ikustean, zer egin duzue baloia ez galtzeko? Nola kokatu zarete espazioan eraso egiteko? Eta nola defenditzeko? Denok erasotzen eta defenditzen duzue? Noiz jaurtitzen duzue atera, zein egoeratan?...”.</p>			
<p><b>6. jarduera</b></p>	<p>Hausnartzeko tartea</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10 min</p>
<p>Ikasle guztiak batera.</p> <p>Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Hausnarketa bideratzeko, galderak egin daitezke.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Denok parte hartu duzue? Nola sentitu zarete? Artzikirolaren arauak ulertu dituzue? Zer egiten duzue zuen ekintzak besteen ekintzekin koordinatzeko? Zeren arabera erabakitzen duzue baloia taldekide bati pasatzea? Berdin da nori pasatu? Baloiarekin edo baloirik gabe zergatik bilatzen dituzue espazio hutsak? Atera jaurtitzeko momentuan zer hartzen duzue kontuan? Estrategiarik erabili duzue?...”.</p> <p>Nahitaezko galdera:</p> <p>“Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saioaren bukaera oso une aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo saioan zer landuko duten azaltzeko eta ikasleek <b>autoebaluzio-orria</b> betetzeko dute.</p>			



4. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Joko-espazioa ezagutzea eta artzikirolaren joko-arauetan sakontzea.</p> <p>Erasorako eta defentsarako bakarkako eta taldeko estrategiak aukeratzea eta erabiltzea.</p> <p>Espazioa eta jokatzeko une eraginkorrak erabiltzea eta besteekin ekintza motorrak koordinatzea.</p>		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Foamezko baloi bigunak, konoak, petoak, erregistro-orria (4.eranskina) eta autoebaluazio-orria (2.eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioa aurkeztea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Marren gainetik harrapaketan jolastea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Areto-futboleko zelai osoa</p> <p>Ikasle guztiak batera. Irakasleak zelaiko marren gainean kokatuko dira guztiak. Bost ikasle harrapatzaileak izango dira, eta baloi bana izango dute eskuetan. Baloiarekin norbait ukitzen dutenean, rolak aldatzen dira: harrapatzailea iheslari bilakatzen da eta harrapatutakoa harrapatzaile. Irakasleek ezin dute baloirik jaurti ezta marra batetik bestera jauzi egin ere.</p> <p>Bukaeran irakasleak aipatuko die jolasean erabili dituzten marrak artzikirolean jokatzeko erabiltzen diren zelaiko marra eta muga berberak direla.</p>			



3. jarduera	Armiarma hirukoitza jolasean aritzea	Denbora	10 min
<p>Areto-futboleko zelai osoa.</p> <p>Ikasle guztiak batera. Ikasle guztiak zelaiaren alde batean kokatuko dira, eta zelaiko hiru marra ezberdinetan harrapatzailea den armiarma bana kokatuko da; areako marra bakoitzean bat eta zelaiaren erdiko marran bestea. Helburua armiarmak ukitu gabe zelaiaren alde batetik bestera pasatzea izango da. Armiarmak ukitzen duen ikaslea, berriz, kanporatua izango da. Armiarmak nahitaez oin batekin marra zapaltzen egon behar du eta beste oinarekin pauso bat eman dezake, beti ere marra zapaltzen dagoela ziurtatuz. Irakasleak txilibituaren bidez irteera txandak antolatuko ditu eta ikasleak bakarka abiatuko dira. Ikasle guztiak zelaia igarotzen saiatu direnean, harrapatzaileak aldatuko dira.</p> <p>Aldaera:</p> <p>-Txanda bakoitzean ikasle bakarra abiatu beharrea, bi ikasle batera abiatzea.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egin ditzake.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Zer estrategia aukeratu duzue zelaia igaro eta harrapatzaileak gainditzeko? Zer izan duzue kontuan igarotzeko unea eta lekua aukeratzeko orduan?...”.</p>			
4. jarduera	Erasotzen eta defendatzen jolastea	Denbora	10 min
<p>Areto-futboleko zelai erdia.</p> <p>Lau hiruren aurka. Hiru ikasle finko mantenduko diren defendatzaileak izango dira eta petoa jantzita eramango dute. Talde erasotzailea laukote batek osatuko du. Jolasaren helburua, erasotzaileek zelai erditik baloia atera eta ate hondoko marran uztea da. Hori lortzen den aldi bakoitzean puntu bat irabaziko du erasoan aritu den taldeak. Defentsan dagoen taldeak, berriz, hori gertatzea galarazi behar du. Horretarako, baloia lapurtzen, zelaitik baloia kanporatzen eta baloia eskuetan duen erasotzailea bi eskuekin ukitzen saiatuko dira. Era horretan, erasotzaile taldea kanporatuko dute.</p> <p>Erasotzaileek aukera bakarra dute eraso antolatu eta puntua lortzeko. Jarraian, beste laukote bat abiatuko da eraso egitera. Tarteka irakasleak defendatzaileak aldatuko ditu, denek erasoko eta defentsako rola bete dezaten.</p> <p>Eskuekin zein oinekin jokatu daiteke.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egin ditzake. Baliozko galderak:</p> <p>“Zer estrategia aukeratu duzue taldean eraso egiteko orduan? Eta defentsa egin duzuenean? Zer hartu duzue kontuan estrategiak aukeratzeko orduan? Zer izan da errazagoa erasotzea ala defenditzea? Zergatik?...”.</p>			


5. jarduera	Artzikirolean jokatzeko 3	Denbora	15 min
<p>Areto-futboleko zelai osoa.</p> <p>Lau lauren aurka. Artzikirol partida bat jokatu dute bi gol sartzeraz. Bi golak jasotzen dituen taldea kanporatua izango da eta haren ordean beste laukote bat sartuko da jokatzera. Laukoteak koloretako petoekin bereiztea komenigarria da. Lau minutuko epean talderen batek ez baditu bi golak sartzen, denbora gehien aritu den taldea kanporatua izango da (lehenengo partidaren, zein talde aterako den zozketaz erabakiko da).</p> <p>Laukote bakoitzak golak apuntatuko dituen arduradun bat izendatuko du. Horrela, denbora amaitzerako, gol gehien sartu dituen laukotea izango da irabazlea.</p> <p>Honako joko-arau hauekin jokatu dute: baloia gorputzeko edozein atalekin ukitu daiteke eta, baloia zelaiaren marretatik kanpo ateratzen denean, esku batekin, biek edo oinarekin jarriko da jokoan ateratako lekutik; atezainak areatik kanpo jokatzeko aukera du eta, gola jasotzen duenean edota baloiak hondoko marra gainditzen duenean, jokoan jartzeko arduradun izango du. Faltak honako hauek dira: zango-trabaketa, heldzea, oztopo egitea, auto-paseak egitea, baloia bote eginez mugitzea eta eskuetan baloia duena aurkariak bi eskuekin ukitzea. Falta guztiak, tokian bertatik aterako dira oinez zein eskuz, eta aurkari bakarrak egin dezake traba, gutxienez metro bateko tartea utziz.</p> <p>Partida bakoitzean, taldeko kapitain bat egongo da, eta horrek erasotzeko eta defenditzeko taldeak izango duen estrategia aukeratu behar du. Kanpoan jokatu gabe dauden taldeek ikusten dituzten estrategiak <b>erregistro-orian</b> apuntatuko dituzte.</p> <p>Epaile-lanak irakasleak egingo ditu.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egin ditzake.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Denok pentsatu eta proposatu dituzue taldeko estrategiak? Nolako estrategiak ikusi edo aurrera eraman dituzue? Zein estrategiak funtzionatu du ongi zuen ustez? Zergatik? Estrategia okerrik ikusi edo aplikatu duzue? Zer egiten zaizue errazagoa erasotzea edo defendatzea?...”.</p>			


6. jarduera	Hausnartzeko tartea	Denbora	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Hausnarketa bideratzeko, galderak egin daitezke</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Denok hartu duzue parte? Nola sentitu zarete? Bakarkako estrategiak aukeratzeko orduan, zer izan duzue kontuan? Eta taldeko estrategiak aukeratzeko orduan? Jokatu aurretik, zer informazio jasotzea eta interpretatzea da garrantzitsua, zuen ustez? Eta jokatzeko unean? Zein joko-egoeratan komeni da atezainak areatik kanpo jokatzea? Eta noiz ez?...”.</p> <p>Nahitaezko galdera:</p> <p>“Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saioaren bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta ikasleek <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			







5. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Erasorako eta defentsarako bakarka nahiz taldean estrategiak azkartasunez aukeratzea.</p> <p>Espazioa defendatzeko eta erasotzeko prozedura hobetzea, jolas-egoera taldearen alde jartzeko.</p>		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Foamezko baloi bigunak, konoak, petoak, bi ahulki, erregistro-orria (4.eranskina), koebaluazio-orria (5.eranskina) eta autoebaluazio-orria (2.eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioa aurkeztea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	“Gol-atezaina”	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Aretoko futbol-zelai osoa. Behar diren atek konoen bidez ezarriko dira.</p> <p>Bosnaka. Ikasle bat atezaina izango da, eta besteak atezainaren postua lortzen saiatuko dira gola sartuz. Horretarako, baloia edozein gorputz atal erabiliz ukitu daiteke, baita baloiari botea emanez desplazatu ere. Gola sartzen duen ikaslea atezain bilakatuko da eta atezaina berriz jokalaria.</p>			



<p><b>3. jarduera</b></p>	<p>“Atezain mugikorra”</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10 min</p>
<p>Areto-futboleko zelai osoa, hondoko marren ondoan konoekin bi eremu markatuko dira.</p> <p>Hamarnaka. Ikasleak bi taldetan petoz bereizita banatuko dira. Talde bakoitzak atezain bat izango du, eta berau, aurkako taldeko zelaiaren hondoko marraren ondoan, konoen bidez markaturiko eremuan kokatuko da. Helburua baloia atezainari pasatzea da. Hori lortzen duen taldeak puntu bat irabaziko du. Horretarako, elkarren artean eskuekin edo oinekin paseak egingo dituzte eta baloia duen ikasleak gehienez hiru pausu eman ahal izango ditu. Aurkariari heltzea edo bultza egitea debekatuta dago.</p> <p>Atezaina bere eremuan libre mugitu daiteke.</p> <p>Golak ahoz adieraziko dituzte.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egin ditzake.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Zuen taldeak baloia duenean non kokatzen zarete espazioan eta norantz mugitzen zarete? Eta baloia galdu duzuean, berreskuratzeko asmoz? Noiz pasatzen diozue atezainari? Zenbat baloi lapurtu dituzue? Zergatik? Eta galdu? Zergatik?...”.</p>			
<p><b>4. jarduera</b></p>	<p>20 segundo eta jaurti! jolasean aritzea</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10 min</p>
<p>Bost hiruren aurka. Hiru ikasle finko mantenduko diren defendatzaileak izango dira eta petoa jantzita eramango dute. Erasotzaile taldea boskote batek osatuko du. Jolasaren helburua da 20 segundotan baloia zelai erditik atera, eraso antolatu eta gola sartzea. Defendatzaileek hori galarazi behar dute. Horretarako, baloia lapurtu, zelaitik kanpora bota edo erasotzaileek baloia eskuetan dutenean haiek bi eskuekin ukitzen saiatuko dira.</p> <p>Erasotzaileek baloi aukera bakarra dute eraso antolatu eta puntua lortzeko. Jarraian, beste boskote bat abiatuko da eraso egitera. Hamar eraso-aukeren ondoren, irakasleak defendatzaileak aldatuko ditu denek rol guztiak bete ditzaten.</p> <p>Talde bakoitzak lorturiko golak, eginiko eraso kopurua, jaurtiketak eta galdutako baloiak <b>erregistro-orrian</b> apuntatuko dituzte.</p> <p>Eskuekin zein oinekin jokatu daiteke.</p> <p>Aldaera:</p> <p>-Eskuekin lortzen diren golak bi puntu balio dute eta oinekin lortzen direnak puntu bakarra, edo alderantziz.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egin ditzake. Balizko galderak:</p> <p>“Eginiko erasoetatik zenbat jaurtiketa egitea lortu duzue? Eta horietatik zenbat gol sartu dituzue? Eta zenbat baloi galdu dituzue? Zergatik? Estrategiak azkar aukeratu beharrak badu eraginik jolasean? Zeintzuk?...”.</p>			




5. jarduera	Artzikirolean jokatzea 4	Denbora	15 min
<p>Areto-futboleko zelai osoa.</p> <p>Bost bosten aurka. Artzikirol partida bat jokatuko dute. Aurreko saioko 5. Jardueraren antolaketa bera izango du jarduera honek; hau da, bi gol sartzeraz edo lau minutuko partida jokatuko dute, eta galtzen duen taldea kanporatua izango da. Lau minutuko epean talderen batek ez baditu bi golak sartzen, denbora gehien aritu den taldea kanporatua izango da (lehenengo partidari, zein talde aterako den zozketaz erabakiko da).</p> <p>Talde bakoitzak golak apuntatuko dituen arduradun bat izendatuko du. Horrela, denbora amaitzean, gol gehien sartu duen taldea izango da irabazlea.</p> <p>Aurreko saioko joko-arauei honakoak gehituko zaizkie: partida hasieran baloia erdialdean jarriko da eta jokalariek beren zelaiko atearen hondoko marraren atzean kokatu dira. Txilibitua entzutean, baloia hartzeraz abiatuko dira eta azkarren iristen denak hasiko du jokia. Falta arruntez gain, area barruan egiten direnak penaltiak dira, eta baita atezainak areatik kanpo egiten dituenak ere. Horrez gain, atezainak baloia jokoan jartzean, aurkariak bi eskuekin ukitzea lortzen badute, penaltia izango da ere.</p> <p>Alboko marretatik baloia ateratzeko orduan, aurkari batek traba egin dezake, betiere marraren beste aldean kokatuta.</p> <p>Partida bakoitzean taldeko kapitain bat egongo da eta horrek, erasotzeko eta defenditzeko taldeak izango duen estrategia proposatu eta erabaki behar du. Kanpoan jokatu gabe dauden taldeak, ikusten dituzten estrategiak <b>erregistro-orrian</b> apuntatuko dituzte. Horrez gain, <b>koebaluazioa-orria</b> beteko dute, eta horretarako, jarduera hasieran irakasleak bikoteak egingo ditu.</p> <p>Epaile-lanak irakasleak eta ikasle batek (boluntario bat) egingo dituzte txandaka.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egin ditzake.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Denok izan zarete kapitainak taldeko estrategiak aukeratzeko? Zein estrategiak funtzionatu du ongi zuen ustez? Zergatik? Zer izan duzue kontuan estrategiak aukeratzeko orduan? Penaltiak aldeko izatea positiboa da zuen ustez? Zergatik?...”.</p>		 <p>The illustration shows a handball court with a coach on the left and several players on the court. A handball is shown in the air near the center of the court. The court has a goal on the right side.</p>	

6. jarduera	Hausnartzeko tarte	Denbora	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Hausnarketa bideratzeko, galderak egin daitezke.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Denok parte hartu duzue? Nola sentitu zarete? Estrategiak azkar erabaki eta aurrera eramateak badu eraginik jokoan? Zeintzuk? Baloia daukazuenean, zer informazio da garrantzitsua jasotzea eta interpretatzea? Eta baloirik ez daukazuenean, taldeak edo aurkariak daukanean, informazio berdina jaso behar dugu? Gure taldearen indarguneak identifikatu eta kontuan hartu ditugu estrategiak aukeratzeko orduan? Eta aurkarien ahuleziak?...”.</p> <p>Nahitaezko galdera:</p> <p>“Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saio bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta ikasleek <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			


<b>6. saioa</b>			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Artzikirolaren ezagutzan eta praktikan ikasleek egin duten aurrerapena balioestea eta praktika maila identifikatzea.</p> <p>Kiroltasunez jokatzea eta sor daitezkeen gatazkak era autonomoan bideratzea eta konpontzea.</p> <p>Norberaren zein besteen ahalegina eta elkarrekiko harremanak emaitzaren gainetik balioestea, irabaztea eta galtzea onartuz.</p>		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Foamezko baloi bigunak, petoak, erregistro-orria (4.eranskina), eta autoebaluazio-orria (2.eranskina)		
<b>Jarduerak</b>			
<b>1. jarduera</b>	Saioa aurkeztea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Baloia hondoko marrara jolasean aritzea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Areto-futboleko zelai osoa.</p> <p>Ikasle guztiak batera. Irakasleak bi taldetan petoz berezita banatuko dira eta talde bakoitzak baloi bana izango du. Helburua baloia aurkariaren hondoko marraren atzean uztea izango da, eta hori gertatzen den aldi bakoitzean, puntu bat irabaziko du taldeak. Horretarako, elkarren artean paseak egingo dituzte edozein gorputz atal erabiliz. Baloia duen ikasleak pauso bakarra eman ahal du. Aurkariari heltzea edo bultzatzea debekatuta dago.</p> <p>Golak ahoz adieraziko dituzte.</p> <p>Aldaera:</p> <p>-Norberaren zelai erdian eskuekin jokatzea derrigorrean eta aurkariaren zelaietan oinak erabiliz. Edo alderantziz, norberaren zelaietan oinekin eta aurkariarenean eskuekin jolastea.</p>			



3. jarduera	Artzikirolean jokatzera 5	Denbora	35 min
	<p>Areto-futboleko zelai osoa.</p> <p>Sei seiren aurka. Artzikirol partida bat jokatu dute. Espazio eta ikasle kopurua uztartzeko, azken saioetako antolaketa bera erabiliko da. Hau da, gol bat sartzea edo lau minutu jokatzera jokatu dute, eta galtzen duen taldea kanporatua izango da. Lau minutuko epean talderen batek ez badu golik sartzen, denbora gehien aritu den taldea kanporatua izango da (lehenengo partidari, zein talde aterako den zozketaz erabakiko da).</p> <p>Talde bakoitzak golak <b>erregistro-orrian</b> apuntatuko dituen arduradun bat izendatuko du. Horrela, denbora amaitzean, gol gehien sartu duen taldea izango da irabazlea.</p> <p>Artzikirolaren joko-arau guztiak jokatu da partida, eta beharra egonez gero, partida hasieran ikasleek arauak gogoraraziko dituzte.</p> <p>Epailan irakasleak eta ikasle batek (boluntario bat) egingo dituzte txandaka.</p> <p>Kiroltasunez jokatzera ezinbestekoa da, joko-arauak betez eta elkarrekiko errespetuzko harremanak bermatuz. Sortu daitezkeen gatazka edo liskarrak era autonomoan konpontzen saiatuko dira ikasleak, eta irakasleak bideratze-lan horretan lagunduko die soilik.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egin ditzake.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Kiroltasunez jokatu duzue? Zer estrategiak erabili dituzue aurkaria gainditzeko? Denok nahi adina parte hartu duzue? Zer sentitu duzue irabaztean? Eta galtzean...”.</p>		
4. jarduera	Hausnartzeko tartea	Denbora	10 min
	<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Hausnarketa bideratzeko, galderak egin daitezke.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Denok hartu duzue parte? Nola sentitu zarete? Artzikirolean jokatzera aurrerapenik ikusi duzue zuen buruan? Zertan? Zer egin duzue gatazka konpontzeko?...”.</p> <p>Nahitaezko galdera:</p> <p>“Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saioaren bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta ikasleek <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>		




<b>7. saioa</b>			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Colpbolaren araudia lantzea eta artzikirolarekin dituen antzekotasunez eta desberdintasunez jabetzea.</p> <p>Eskuarekin edo gerritik gorago edozein gorputz atalekin baloia jotzean, baloia kontrolatzea.</p> <p>Jolas-egoera norberaren alde jartzea eta helmugarantz aurrerantz egitea.</p> <p>Espazio hutsei antzeman eta haiek modu eraginkorrean erabiltzea.</p>		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Foamezko baloi bigunak, konoak, globoak, baloi-erraldoiak, indiakak, goma-aparrezko pilotak, colpolaren arauen-orria (6.eranskina) eta autoebaluazio-orria (2.eranskina)		
<b>Jarduerak</b>			
<b>1. jarduera</b>	Saioa aurkeztea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, saio honetan zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Baloijotzeak esperimentatzea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Areto-futboleko zelaia. Lurrean honako materiala izango da prest: globoak, baloi-erraldoiak, foamezko baloiak, indiakak eta goma-aparrezko pilotak.</p> <p>Binaka. Bikote bakoitzak material bat hartuko du eta material hori gerritik gorako edozein gorputz atalekin kolpatuz baloijotze era desberdinak esperimentatzea da helburua. Horretarako, ikasleak libre arituko dira. Irakasleak, txilibitua jotzen duenean, materiala lurrean utzi eta beste material bat hartuko dute. Ezin dute materiala bi eskuekin hartu, ez bada lehen baloijotzean.</p> <p>Bukaeran irakasleak galderak egin ditzake. Balizko galderak:</p> <p>“Gerritik gorako zein gorputz atal dira egokienak materialak jotzeko? Berdin da edozein material non eta nola jo? Nola jotzen duzue materiala norabide zehatz bat emateko? Eta indar handiagoz jotzeko?...”.</p>			


<b>3. jarduera</b>	Colpolaren araudia lantzea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean eseriko dira eta irakasleak <b>colpolaren arauen-orria</b> banatuko die. Ondoren, lauko taldetan banatuko dira, eta arauak irakurri eta aztertu ondoren, artzikirolaren arauekin alderatu eta dauden antzekotasun eta desberdintasun nagusiak idatziko dituzte. Amaitzeko, ikasle guztiak biribilean eseriko dira, eta talde bakoitzeko bozeramaileak sortu diren zalantzak azalduko ditu eta guztion artean argituko dituzte.</p> <p>Irakasleak gidatze-lana egingo du. Ez du zalantzen erantzuna aurrez eman behar, eta ikasleei hausnartzeko eta erantzunak aurkitzeko denbora eman behar die. Bukaeran, joko-arauak saioz saio txertatuz joango direla aipatuko die.</p>			
<b>4. jarduera</b>	Tenis-colpbolean jolastea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Sare bidez banatutako zelaia: 6 metro luze eta 3 metro zabal.</p> <p>Sarearen altuera: 1 metro (Sarerik ez badago, goma bat edo banku suediar bat erabil daiteke).</p> <p>Bi biren aurka. Ikasleak aurrez aurre kokatuko dira sarearen bi aldeetan. Baloiak sarearen gainetik pasa behar du eta aurkarien zelaia bi aldiz jarraian ukitzea edo aurkariak baloia ez itzultzea da bikote bakoitzaren helburua. Horretarako, baloia gerritik gorako edozein gorputz atalekin behin bakarrik jo dezakete, bote egin aurretik eta ondoren.</p> <p>Tantoak ahoz adieraziko dituzte.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Norantz jaurti dituzue baloia? Zergatik? Espazio hutsei errez antzeman diezue?...”.</p>			
<b>5. jarduera</b>	Colpolean jokatzea 1	<b>Denbora</b>	15 min
<p>Areto-futboleko zelaia: 20 metro luze eta 10 metro zabal. Ateak: 2 metro luze (konoekin ezarri).</p> <p>Bi biren aurka. Colpbol partida bat jokatuko dute. Helburua baloia aurkarien atean sartzea da eta gol gehien sartu duen bikoteak irabaziko du partida. Honako arauekin jokatuko dute: baloia gerritik gorako edozein gorputz atalekin jo daiteke; ezin da oina erabili ezta baloia eskuetan hartu edo atxikirik egin; ez dago atezainik; ez dago zelai mugarik; gola sartzean atetik aterako dute baloia eta debekatuta dago aurkariari heltzea edo bultza egitea. Bakarka eta bikotekidearekin adostutako estrategiak aukeratu eta erabiliko dituzte.</p> <p>Aniztasunari trataera egokia emateko, baloia ukabila itxita jotzea</p>			







<p>eta norberak bi aldiz jarraian jotzea posible izango da.</p> <p>Golak ahoz adieraziko dituzte.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Aterantz hurbildu ahal izateko eta bikoteak baloia jotzeko aukera duela ikusten duzuenean non kokatu zarete espazioan? Eta baloia aurkariak jo behar dutenean? Noiz eta zer egoeratan jaurtitzen duzue atera?...”.</p>			
<b>6. jarduera</b>	Hausnartzeko tarte	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Honako galdera hauek egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Denok parte hartu duzue? Nola sentitu zarete? Colpolaren arauak ulertu dituzue eta artzikirola jokoarekin dituen antzekotasunez eta desberdintasunez jabetu zarete? Zer gorputz atalekin kolpatuz kontrolatzen duzue errazago baloia? Espazio hutsei erraz antzematen diezue?...”.</p> <p>Nahitaezko galdera:</p> <p>“Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saioaren bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta ikasleek <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			



8. saioa			
<b>Saioaren helburuak</b>	<p>Desplazamenduak, baloi-jotzeak, baloi-gidatzeak, paseak eta jaurtiketak besteekin koordinatzea.</p> <p>Espazio hutsei antzeman eta jokatzeko une eraginkorrenak taldearen alde erabiltzea.</p> <p>Atezainaren funtzioa eta rola txertatzea.</p> <p>Bakarka eta taldean adostutako estrategiak baliatzea.</p>		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Gomazko baloi bigunak, konoak, petoak eta autoebaluazio-orria (2.eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioa aurkeztea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	Baloi-balan jolastea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Areto-futboleko zelai erdia.</p> <p>Ikasle guztiak batera. Denak denen aurka jolastuko dira. Helburua baloi bigunaz jolaskideren bat jotzea da. Baloiak zuzenean gorputzean jo behar du, aurrez lurra ukitu gabe. Hori gertatzen denean, jolaskidea kanporatu eta lekuan bertan lurrean esertzen da. Baloia eskuekin hartzea lortzen badu, ordea, jolasten jarraituko du. Baloia gerritik gorako edozein gorputz atalekin jo daiteke.</p> <p>Eserita dagoen ikasleak baloia ukitu behar du altxatu eta jolasten jarraitzeko.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Besteek zuek kanporatzeko arriskuan egon zaretenean zer egin duzue? Nola kokatu zarete? Noiz jaurtitzen duzue baloia, zein egoeratan?...”.</p>			



<p><b>3. jarduera</b></p>	<p>Errondoa handitzen jolastea</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10 min</p>
<p>Hirunaka. Bi ikasle aurrez aurre jarriko dira eta erdian beste ikasle bat kokatuko da. Baloia gerritik gorako edozein gorputz atalekin joz paseak egiten saiatuko dira, eta erdian dagoen ikaslea, berriz, baloia ukitzen saiatuko da. Baloia ukitzen badu, rolak aldatuko dira: erdian dagoena izkinara joango da eta izkinan dagoena erdira. Baloiak lurra ukitu dezake. Irakasleak txilibitua jotzean, hirukotea beste talde batekin elkartuko da eta seinaka jolastuko dira, erdian bi ikasle kokatuz. Era horretan, txilibitua jotzen den bakoitzean errondoa handitzen joango da ikasle guztiak batera jolastu arte.</p>			
<p><b>4. jarduera</b></p>	<p>“Gol-atezaina”</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10 min</p>
<p>Seinaka. Ikasleak bi taldetan banatuko dira petoz bereizita. Talde batek defentsan jolastuko du eta gola jasotzea galarazi behar du. Horretarako atezain bat jarriko dute atean. Beste taldeak aldiz, gola sartzen saiatuko da. Hori gertatzean rolak aldatuko dituzte. Baloia gerritik gorako edozein gorputz atalekin jo daiteke eta atezainak oinak erabil ditzake.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>“Defendatzea egokitu zaizuenean nola kokatu zarete? Zer estrategia erabili duzue? Eta erasoan aritu zaretenean? Noiz jaurtitzen duzue baloia, zein egoeratan?...”.</p>			
<p><b>5. jarduera</b></p>	<p>Colpolean jokatzea 2</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>15 min</p>
<p>Areto-futboleko zelaia: 20 metro luze eta 10 metro zabal. Ateak: 2 metro luze (konoen bidez jarriko dira).</p> <p>Hiru hiruren aurka. Colpoleko partida bat jokatuko dute. Partida hasieran, ikasleek atezaina nor izango den eta noiz aldatuko dituzten rolak adostuko dute. Helburua baloia aurkarien atean sartzea da eta denbora tartean gol gehien sartu duen taldeak irabaziko du partida. Aurreko saioko joko-arau berdinak mantenduz, honako arauak gehituz edo aldatuz jokatuko dute: norberak behin bakarrik jo dezake baloia jarraian; ezin da ukabilez baloia jo; atezainak area barruan eta gola saihestu nahian hanka erabil dezake; atezainak areatik kanpo joka dezake.</p> <p>Bakarka eta taldean adostutako estrategiak aukeratu eta erabiliko dituzte.</p> <p>Golak ahoz adieraziko dituzte.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p>			

Balizko galderak: “Nola kokatu zarete espazioan eraso egiteko? Eta nola defendatzeko? Denok erasotzen eta defenditzen duzue? Noiz jaurtitzen duzue atera, zein egoeratan?...”.			
<b>6. jarduera</b>	Hausnartzeko tartea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Hausnartzeko tartea bideratzeko, galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balizko galderak: “Denok parte hartu duzue? Nola sentitu zarete? Zer egiten duzue zuen ekintza besteen ekintzekin koordinatzeko? Espazio hutsei antzeman eta erabiltzen dituzue zuen alde? Atera jaurtitzeko momentuan zer hartzen duzue kontuan? Estrategiarik erabili duzue?...”.</p> <p>Nahitaezko galdera: “Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saioaren bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta ikasleek <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			

9. saioa			
<b>Saioaren helburua</b>	<p>Jolas-egoeran espazio eta une eraginkorrenak taldearen alde erabiltzea.</p> <p>Espazioa defendatzeko eta erasotzeko prozedurak hobetzea.</p> <p>Erasorako eta defentsarako bakarkako eta taldeko estrategiak aukeratzea eta erabiltzea.</p>		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Gomazko baloi bigunak, konoak, petoak, banku suediarak, erregistro-orria (4.eranskina) eta autoebaluazio-orria (2.eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioa aurkeztea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, zer landuko duten azalduko du.			
<b>2. jarduera</b>	“Lapikoa”	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Bosnaka. Ikasleak hormaren edo frontisaren aurrean kokatuko dira baloi batekin. Gerritik gorako edozein gorputz atal erabiliz baloiari jotzen arituko dira jolasten, eta tantoa galtzen duena lapikora –frontisera– joango da. Lapikoan dagoen ikasle batek baloia airean hartuz gero, azkenengoz jo duenarekin rol aldaketa egingo du, eta lapikotik irtengo da.</p> <p>Jolasean, bi ikasle geratzean, gainontzeko guztiek lapikoa utzi eta kantxatik irtengo dira. Kantxan gelditzen diren ikasleek azken norgehiagoka jokatuko dute. Irabazleak bizitza-sari bat eskuratuko du, geroago, jokoa berriro hastean, kanporatze bat saihesteko balio izango duena; hau da, nahiz eta tantoa galdu ez da lapikora joango.</p> <p>Baloi bati inork erantzungo ez balio, botea eman duen lekutik hurbilen dagoen jokalaria joango litzateke lapikora, eta jokalaria hori zein den argi egongo ez balitz, botetik hurbilen dauden bi jokalaria joango lirateke.</p>			

3. jarduera	"Baloï-dorrea"	Denbora	10 min
<p>Areto-futboleko zelai erdia.</p> <p>Izkinetan banku suediar bana kleraz marraztutako borobil baten barnean.</p> <p>Hamarnaka. Ikasleak bi taldetan petoz bereizita banatuko dira eta talde bakoitzetik ikasle bana banku suediarren gainean kokatuko dira. Helburua baloia taldeko dorreari helaraztea da. Horretarako, gerritik gorako edozein gorputz atalekin jo daiteke baloia. Inoiz ez norberak bi aldiz jarraian. Hori lortzen duen taldeak puntu bat irabaziko du.</p> <p>Aldaera:</p> <p>-Erasoko prozeduran abantaila izateko, lau seiren aurka jolastu daitezke.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>"Zuen taldeak baloia izan duenean zer egin duzue eraso antolatu eta dorrera hurbiltzeko? Eta zer egin duzue defendatzeko? Nolako baloi-jotzeak egin dituzue? Zergatik?..."</p>			
4. jarduera	Erreleboak egitea	Denbora	10 min
<p>Areto-futboleko zelai erdia.</p> <p>Bosnaka. Ikasleak zelaiaren hondoko marraren atzean kokatuko dira talde bakoitza baloi batekin. Helburua, baloia gerritik gorako edozein gorputz atalekin joz, ahalik eta azkarren, zelai erdian dagoen konoraino desplazatzea da, hura baloiarekin ukitu eta berriz hasierara itzultzea. Era ezberdinetako lasterketak egingo dituzte (bakarka baloia joz, binaka, hirunaka, launaka eta talde osoa batera) eta lehen iristen den taldeak puntu bat irabaziko du aldiro. Nahitaezkoa da taldekide guztiek baloia jotzea joan-etorri bakoitzean, eta aukera izango dute jarraian nahi beste aldiz baloia jotzeko.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balizko galderak:</p> <p>"Nolako baloi-jotzeak eginez mugitu zarete azkarrago? Zergatik aukeratu duzue baloi-jotze bat edo bestea?..."</p>			

5. jarduera	Colpolean jokatzea 3	Denbora	15 min
<p>Areto-futboleko zelai osoa.</p> <p>Bost bosten aurka. Colpboleko partida bat jokatuko dute. Espazioa eta ikasleen kopurua uztartzeko “kiniela” eran jokatuko dute. Hau da, gol bat sartu arte edo lau minutuz jokatuko dute, eta galtzen duen taldea kanpora joango da. Lau minutuko epean talderen batek ez badu golik sartzen, denbora gehien aritu den taldea joango da kanpora (lehenengo partidari, zein talde aterako den zozketaz erabakiko da).</p> <p>Talde bakoitzak golak <b>erregistro-orrian</b> apuntatuko dituen arduradun bat izendatuko du. Horrela, denbora amaitzean, gol gehien sartu duen taldea izango da irabazlea.</p> <p>Aurreko saioko joko-arau berdinak mantenduz, honako arauak gehituz edo aldatuz jokatuko dute: baloia zelaiaren marretatik kanpo ateratzen denean, alboko marretatik, kornertetik edota area baretatik aterako dute; nahi gabe baloia bi aldiz jarraian jotzean, epaileak “jarraitu” oihukatuko du; falta guztiak gertuen dagoen alboko marretatik aterako dira; ez dago penaltirik eta atezainak ezingo du areatik kanpo jokatu.</p> <p>Taldean adostutako estrategiak aukeratu eta erabiliko dituzte.</p> <p>Golak ahoz adieraziko dituzte.</p> <p>Bukaeran galdera egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Nola antolatu zarete eraso egiteko? Eta nola defendatzeko? Zer estrategia aukeratu duzue? Zergatik? Zer izan duzue kontuan estrategiak aukeratzeko orduan?...”.</p>			
6. jarduera	Hausnartzeko tartea	Denbora	10 min
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Honako galdera hauek egin ditzake irakasleak.</p> <p>Balitzko galderak:</p> <p>“Denok parte hartu duzue? Nola sentitu zarete? Baloia daukazuenean zer informazio hartzen duzue kontuan? Eta baloirik ez daukazuenean? Noiz dakizue zer egin? Taldekideen artean hitz egitea, komunikatzea garrantzitsua dela pentsatzen duzue?...”.</p> <p>Nahitaezko galdera:</p> <p>“Zer ikasi duzue gaur?”.</p> <p>Saioaren bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo saioan zer ikasi eta zer landuko duten azaltzeko eta ikasleek <b>autoebaluazio-orria</b> betetzeko.</p>			

10. saioa			
<b>Saioaren helburua</b>	<p>Colpbolaren ezagutzan eta praktikan ikasleek egin duten aurrerapena balioestea eta praktika maila identifikatzea.</p> <p>Kiroltasunez jokatzea eta sor daitezkeen gatazkak era autonomoan bideratzea eta konpontzea.</p> <p>Norberaren zein besteen ahalegina eta elkarrekiko harremanak emaitzaren gaineratik balioestea, irabaztea eta galtzea onartuz.</p>		
<b>Non</b>	Kiroldegia		
<b>Materiala</b>	Gomazko bali bigunak, petoak, erregistro-orria (4.eranskina), unitatearen ikasleen balioespen-orria (7.eranskina) eta autoebaluazio-orria (2.eranskina)		
Jarduerak			
<b>1. jarduera</b>	Saioa aurkeztea	<b>Denbora</b>	5 min
Ikasle guztiak batera. Irakasleak gogora ekarriko du aurreko saioan landutakoa. Horren ostean, unitatearen azken saio honetan zer landuko duten azalduko die.			
<b>2. jarduera</b>	Colpbolean eskutik helduta jolastea	<b>Denbora</b>	10 min
<p>Areto futbolekoa zelai osoa</p> <p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak bi taldetan petoz bereizita banatuko eta binaka eskutik helduko diote. Helburua aurkarien atean gola sartzea da eta horretarako eskuak eta oinak erabil ditzateke. Irakasleak txilibitua jotzen duenean askatu eta bakarrik jolasteko aukera izango dute eta berriz txilibitua entzuterakoan binaka elkartuko dira.</p> <p>Aldaera: bi edo hiru baloiekin jolastea.</p>			



<p><b>3. jarduera</b></p>	<p>Colpbolean jokatzea 3</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>35 min</p>
<p>Areto-futboleko zelai osoa.</p> <p>Zazpi zazpiren aurka. Colpbol partida bat jokatu dute. Espazioa eta ikasle kopurua uztartzeko, "kiniela" eran jokatu da partida. Hau da, gol bat sartu arte edo lau minutuz jokatu dute, eta galtzen duen taldea kanpora joango da. Lau minutuko epean talderen batek ez badu golik sartzen, denbora gehien aritu den taldea joango da kanpora (lehenengo partidan, zein talde aterako den zozketaz erabakiko da).</p> <p>Talde bakoitzak golak <b>erregistro-orrian</b> apuntatuko dituen arduradun bat izendatuko du. Horrela, denbora amaitzean, gol gehien sartu duen taldea izango da irabazlea.</p> <p>Colpboleko joko-arau guztiakin jokatu da partida, eta beharra ikusiz gero, partida hasieran ikasleei arauak gogoratzen lagunduko die irakasleak.</p> <p>Irakasleak eta ikasle batek (boluntario bat) epaile-lanak egingo dituzte txandaka.</p> <p>Kiroltasunez jokatzea ezinbestekoa da, joko-arauak betez eta elkarrekiko errespetuzko harremanak bermatuz. Sortu daitezkeen gatazka edo liskarrak era autonomoan konpontzen saiatuko dira ikasleak, eta irakasleak bideratze-lan horretan lagunduko die soilik.</p> <p>Bukaeran irakasleak galdera egin ditzake. Balizko galderak:</p> <p>"Kiroltasunez jokatu duzue? Zer estrategiak erabili dituzue aurkaria gainditzeko? Denok nahi adina parte-hartu duzue?..."</p>			
<p><b>4. jarduera</b></p>	<p>Hausnartzeko tarte</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10 min</p>
<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak, eta abar). Gero, ikasleen kritikak eta gomendioak jasoko ditu irakasleak, egonez gero.</p> <p>Bukaeran galderak egin ditzake ikasleei irakasleak. Balizko galderak:</p> <p>"Denok parte hartu duzue? Nola sentitu zarete? Colpbolean jokatzeko aurrerapenik egin duzuela pentsatzen duzue? Zertan? Zer egin duzue gatazka konpontzeko?..."</p> <p>Nahitaezko galdera:</p> <p>"Zer ikasi duzue gaur?"</p> <p>Saioaren bukaera une oso aproposa da saioan zer ikasi duten azpimarratzeko eta hurrengo unitatean zer landuko duten azaltzeko. Ikasleak <b>autoebaluazio-orria</b> eta <b>unitatearen balioespen-orria</b> beteko dituzte.</p>			

**Eranskinak**

- 1. eranskina: hasierako ebaluazioaren orriak
- 2. eranskina: autoebaluazio-orria
- 3. eranskina: artzikirolaren araudia
- 4. eranskina: erregistro-orria
- 5. eranskina: koebaluazio-orria
- 6. eranskina: colpbolaren araudia
- 7. eranskina: unitatearen ikasleen balioespen-orria
- 8. eranskina: lorpenen jarraipen-orria
- 9. eranskina: Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa: Gorputz Hezkuntzako programazioa

## 1. eranskina

## IKASLEAREN HASIERAKO EBALUAZIO-ORRIAK

IZENA: \_\_\_\_\_ MAILA: \_\_\_\_\_

1. Talde-kirolak gustuko al dituzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahiko
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ezer ez
2. Talde-kiroletan jokatu duzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahiko
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ezer ez
3. Artzikirola ezagutzen al duzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahiko
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ezer ez
4. Colpbola ezagutzen al duzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahiko
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ezer ez
5. Aurrez artzikirol eta colpbolean jokatu duzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahiko
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ezer ez

TALDEAREN AURRE EZAGUTZEN LABURPENA	BAI	ERDIZKA	EZ
Ikasleek, orokorrean, talde-kirolak gustukoak dituzte.			
Ikasleek talde-kirolen bat praktikatzen dute.			
Ikasleek artzikirola ezagutzen dute.			
Ikasleek colpbola ezagutzen dute.			
Ikasleek noizbait artzikirolean aritu dira.			
Ikasleak noizbait colpbolean aritu dira.			

## IRAKASLEAREN HASIERAKO EBALUAZIO-ORRIA

TALDEAREN AURRE EZAGUTZA ETA ESPERIENTZIA	BAI	ERDIZKA	EZ
Eskuz eta hankaz taldeak baloiaren kontrol eta menderatze esanguratsua du.			
Jokoak jarraitutasuna (ekintza motor jarraituak eta rol aldaketak) eta erritmoa du.			
Ekintza motorrak (desplazamenduak, paseak, harrerak, baloi-jotzeak, baloi-gidatzeak, jaurtiketak), besteekin koordinatzen dituzte.			
Oinarrizko trebetasun motorren maila egokia da (desplazamenduak, paseak, harrerak, baloi-gidatzeak, baloi-jotzeak, jaurtiketak, jauziak eta birak).			
Jokoan espazio hutsak eta pribilegiatuak erabiltzen dituzte aterantz gerturatu eta gola sartzeko.			
Espazioaren banaketa egokia eta eraginkorra da.			
Taldean estrategiak adostu eta aplikatzen dituzte.			
Ikasle guztiek bi roletan (defentsa-erasoan) parte-hartzen dute.			
Joko-arauak denek kiroltasunez betetzen dituzte.			
Jarrera baikorra dute, ahalegintzen dira eta motibatuta daude.			
Galtzea eta irabaztea onartzen dute.			

## 2. eranskina

## AUTOEBALUAZIO-ORRIA

ONDO: BERDEA / HOLA-HOLA: HORIA / GAIZKI: GORRIA / EZIN DUT EGIN: URDINA / EZ DA ETORRI: BELTZA (IRAKASLEAK)							
IKASLEA  ----- TALDEA  -----	Janzkera	Jarduerak	Jarrera				Osasun- eta higiene-ohiturak
	Jarduera fisikoa egiteko arropa eta oinetako egokiak erabiltzen ditut	Gaitasun motorrean hobetzen ari naiz	Jardueretan, gustura hartzen dut parte eta jarrera positiboa dut	Harremanak emaitzaren ginetik balioesten ditut	Irabaztea edo galtzea onartzen dut	Hausnartzeko denboran, taldean era positiboan eragiten dut eta kritika eraikitzaileak egiten ditut	Jarduera fisikoa egitean, osasuna eta higiena zaintzen ditut
1. saioa	○	○	○	○	○	○	○
2. saioa	○	○	○	○	○	○	○
3. saioa	○	○	○	○	○	○	○
4. saioa	○	○	○	○	○	○	○
5. saioa	○	○	○	○	○	○	○
6. saioa	○	○	○	○	○	○	○
7. saioa	○	○	○	○	○	○	○
8. saioa	○	○	○	○	○	○	○
9. saioa	○	○	○	○	○	○	○
10. saioa	○	○	○	○	○	○	○

**3. eranskina**

**ARTZIKIROLAREN ARAUDIA**

- <http://www.gorputzheziketa.net/datos/docs/222/ARTZIKIROL-1.pdf>

**4. eranskina****ERREGISTRO-ORRIA**

<b>ESTRATEGIAK</b>		
<b>ERASOAK</b>		
LORTURIKO GOLAK	EGINDAKO JAURTIKETAK	GALDUTAKO BALOIAK



## 5. eranskina

## KOEALUAZIO-ORRIA

KOEALUAZIO-ORRIA			
EBALUATUTAKO IKASLEAREN IZENA:	ONGI	ERDIZKA	GAIZKI
<b>Lorpen-adierazleak</b>			
Baloia eskuekin eta oinekin kontrolatzen du.			
Artzikirolaren arauak ezagutu eta betetzen ditu.			
Desplazamenduak, baloi-jotzeak, baloi-gidatzeak, paseak, harrerak eta jaurtiketak erraz egiten ditu.			
Unean uneko erabakiak eta estrategiak hartzen ditu.			
Taldearekin batera jokatzeko du taldeko estrategiak aurrera eramanez.			
Errespetuz hitz egiten die besteiei.			
Jokoan saiatzen da eta taldekideei laguntzen die.			

**6. eranskina****COLPBOLAREN ARAUDIA**

<http://www.colpbol.es/menu/historiaC.html>

**ARAU OROKORRAK<sup>1</sup>**

Colpbolaren trebetasun nagusia jokoaren muina baloia jotzea da. Baloia bakarrik jo daiteke eskuez, besoez edo gerritik gorako gorputz atalez. Gainera, jokalariak ezin du INOIZ baloia BI ALDIZ JARRAIAN jo (jokoaren oinarrizko araua ).

**Debekatuta dago:**

- Bi bider segidan jotzea.
- Hanka edo oinekin baloia nahita jotzea.
- Ukabila itxita baloia jotzea.
- Baloia bi eskuz edo batez atxikitzea edo jaurtitzea.
- Aurkariari heltzea edo bultza egitea.
- Sakeetan distantzia ez errespetatzea.
- Arau-hauste horien ondorioa falta da: falta egin den lekutik hurbilen dagoen alboko marratik egin beharko du sakea beste taldeak.
- Atezainak baloia hankaz jo dezake, baldin eta gola saihesteko bada.
- Segidan eskuz bitan edota hankaz jotzeari buruzko arau berezia: epaileak erabakiko du kasuan kasu nahita edo nahi gabe egin diren. Nahita eginak izanez gero falta adieraziko du; eta nahi gabe izan bada, epaileak "jarraitu" oihukatuko du.

**Sakeak:**

- Faltak: alboko marratik aterako dira.
- Baloia albotik ateratzen bada: alboko sakea.
- Ate-eremuko marratik ateratzen bada: kornerra edo ateko sakea. Ateko sakea egitean, ateko eremuaren barnean gehienez atezaina eta jokalaria bat egon daitezke.

---

<sup>1</sup> Irale, R300 2012-2013 ikasturtea. Iñaki Hernandez, Iñaki Landa. Kutturlio taldea. Oharra: arauak hemendik hartu dira.

- Erdiko sakea: gola sartzen denean.

- Epailearen sakea: norgehiagoka hastean, edo jokoa gelditu ondorenean.

Sake guztiak baloia jotzen dira, eta gainontzeko jokalariek guztiak gutxienez hiru metrora kokatzen dira.

### **Beste arau batzuk:**

- Ez dago penaltirik. Ate eremuaren barnean egindako faltak alboko marratik aterako dira.
- Zelaia: jokorako lekua hogeita metro zabal eta berrogeita metro luze duen zelaia da. Alde bakoitzean hiru zutoinek osatutako ate bat dago. Zelaia bi zatitan banatzen da eta ateen aurrean area bana dago.
- Baloia: baloia esferikoa da; plastikozkoa izan behar du eta gehienez 72 cm-ko zirkunferentzia bat izango du eta gutxienez 65 cm-koa.
- Jokalari kopurua: zazpi jokalariek (6 eta atezaina) zelai barruan. Taldeek mistoak izan behar dute. Taldea gehienez hamabi lagunek osatzen dute.
- Hemezortzi urtetik gorakoentzat partidak hogeita bost minutuko bi denbora ditu, eta denboren artean hamar minutuko atsedena dago. Hamahiru eta hemezortzi urte bitartekoentzat hogeita minutuko bi denbora ditu. Zortzi eta hamabi urte bitartean hamabi minutuko bi denbora ditu. Azken bi kasu horietan bost minutuko atsedena dago.
- Parte hartzea nahitaezkoa da. Gogotsu eta aktibo mantendu behar dugu jokoak irauten duen bitartean.
- Joko garbia erabiliko dugu beti, eta taldekideak, aurkakoak, epailea eta jokoaren arauak errespetatu.
- Indarkeriaren erabilera ez da onartzen.
- Alboko marrako sakeetan ezin da gola sartu. Aldiz, atezainak saketik zuzenean sar dezake gola.

## 7. eranskina

## UNITATEAREN IKASLEEN BALIOESPEN-ORRIA

1. "Artzikirola eta colpboleko" unitate didaktikoa gustukoa izan al duzu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahiko
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ezer ez
2. Artzikirolean eta colpbolean jokatzen ikastea zaila edo erraza iruditu al zaizkizu?
  - a. Bai, oso zaila
  - b. Bai, nahiko zaila
  - c. Ez, nahiko erraza
  - d. Ezer, oso erraza
3. Unitatearen iraupena eta saio kopurua egokiak izan al dira?
  - a. Bai, oso egokiak
  - b. Bai, egokiak
  - c. Ez, zailak
  - d. Ez, aspergarriak
4. Eginiko jarduerak eta jolasak gustatu al zaizkizu?
  - a. Bai, asko
  - b. Bai, nahiko
  - c. Ez, gutxi
  - d. Ezer ez
5. Unitatean landutako jarduera eta jolasen progresioak egokiak izan al dira?
  - a. Bai, oso egokiak
  - b. Bai, egokiak

- c. Ez, zailak
- d. Ez, aspergarriak
6. Artzikirola eta colpbolaren arauen egokitzea eta mailakatzea egokiak izan al dira?
- a. Bai, oso egokiak
- b. Bai, egokiak
- c. Ez, zailak
- d. Ez, aspergarriak
7. Aniztasunari emaniko trataera egokia iruditu zaizu?
- a. Bai, oso egokia
- b. Bai, egokia
- c. Ez, zailak
- d. Ez, aspergarriak
8. Irakaslearen lana (azalpenak, laguntza, motibazioa...) egokia izan da?
- a. Bai, oso egokia
- b. Bai, egokia
- c. Ez oso ona
- d. Txarra
- e. Zertan hobetu dezake bere lana?
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
9. Zer aldatu edo hobetuko zenuke artzikirolaren eta colpbolaren unitatean:
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
10. Zer ikasi duzu, unitate didaktiko honetan?
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_

8. eranskina

LORPENEN JARRAIPIEN-ORRIA

LH 5 EBALUAZIOA 201_/201_ Unitatearen izenburua: Artzikirola eta colpbola	Jolas-egoeran, eskuekin eta oinekin baloia kontrolatzen du.	Jolas-egoera bere alde edo taldearen alde jartzeko gai da.	Erasorako eta defentsarako bakarkako eta taldeko estrategiak erabiltzen ditu.	Jolas-egoeran, espazio hutsi antzeman eta modu eraginkorrean erabiltzen ditu.	Artzikirola eta colpbolaren arauak ezagutu eta betetzen ditu.	Desplazamenduak, baloiarekin eta baloirik gabe, pase-harrerak, jauziak, baloi-gidatzeak, baloi-jotzeak eta gola sartzeko jaurtiketak era koordinatuan eta jarraituan egiten ditu.	Eraso- eta defentsa-egoeretan rolak identifikatu eta betetzen ditu.	Bere ekintza motorrak besteekin koordinatzen ditu.	Jardueretan, gustura hartzen du eta jarrera ona du.	Ahalegina eta harremanak emaitzaren gainetik balioesten ditu.	Irabaztea edo galtzea onartzen du.	Hausnarketa-denboran, taldean era positiboan eragiten du eta kritika eraikitzailea	Jarduera fisikoa egiteko arropa egokiak erabiltzen ditu.	Jarduera fisikoa egitean, osasuna eta higieena zaintzen ditu.
1.														
2.														
3.														
4.														
5.														
6.														
7.														
8.														
9.														
10.														
11.														
12.														
13.														
14.														
15.														
16.														
17.														
18.														

## 9. eranskina

## LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA: GORPUTZ HEZKUNTZAKO PROGRAMAZIOA

LEHEN HEZKUNTZA (BIGARREN ZIKLOA)			
GORPUTZ HEZKUNTZA			
PROGRAMAZIOA			
	4. maila	5. maila	6. maila
1. unitatea	Irristaketa	Atletismoa eta egoera fisikoa I	Atletismoa eta egoera fisikoa II
2. unitatea	<i>Azken dakotak</i> Ipuin motorra	“Antzara-jolasa”	<i>Aronsonen puzzlea</i> elkarlaneko egitura
3. unitatea	<i>Artzikirola eta colpbola</i>	<i>Tag</i> errugbia	Boleibola
4. unitatea	Gorputz-adierazpena I	Gorputz-adierazpena	<i>Gorputz Hezkuntzako bizipenak</i> antzerkia
5. unitatea	Euskal pilota	Euskal pilota	Badmintona
6. unitatea	Mendiko bizikletaz jolasean	Orientazio-lasterketak	Kirol-eskalada

Ekintza motorren DOMINIOAK					
1	2	3	4	5	6
Bakarkako ekintzak	Bat baten aurkako ekintzak	Elkarlaneko ekintzak	Elkarlaneko-aurkakotasuneko ekintzak	Ziurgabetasun-inguruneko ekintzak	Adierazpen-eta arte-ekintzak